

# 1.GAIA: KONTZEPTUA, DEFINIZIOA ETA HISTORIA LABURRA

## 1. KONTZEPTUA ETA DEFINIZIOA

### • KONTZEPTUA

- Kazetaritza diseinua zientzia bat al da? Ez. Denbora aldatzen dan bezala toki batetik bestera diseinu berak esanahi ezberdina izan dezake: arroxak mendebaldean feminitatearekin lotzen da, baina txinako hainbat herrialdeetan gizonekin.
- Teknika bat da? Ez, teknika bat behar da baina ez da teknika bat soilik. Teknikaz gain, beste hainbat gauza eduki behar ditugu kontuan...
- Arte bat da? Ez, ez da artea. Dena ez da itxura, edukiaren menpe dago, testuak ematen duenaren zerbitzura. Kazetaritza egitean diseinua bigarren plano batean dago, edukia da garrantzitsuena. Super kargatua jartzeaz dena, ez da nabarituriko atzetik don testua ta hoi ez da zuk lortu nahizun efektua, justu kontrakoa da.
- Zer da orduan? Espresio bide bat da, komunikatzeko modu bat, zeinu grafikoetaz baliatzen dena. Diseinatzailea prentsan arlo grafikotik informatzen duen kazetaria da. Hau da, diseinatzailea ere kazetari bat gehiago bezala kontatzen da.



- **Londres:** Zerbait berritzailea egin nahi dute, kolore ez oso ohikoak (magenta, oria...) eta forma ere berritzailea, abstraktuagoak. Abstrakzio horren barruan ere imaginatu daiteke irudiak 2012 esaten duela, baina baita pertsona bat edo diskobolo moduko bat makurtua.

- **Fedex:** Estatu Batuetako enpresa danez, beraien banderaren koloreak hartu dituzte. Horizontalean, irudi serioa eman nahi izan du paketeriako enpresa horrek, forma tradizionala... Paketeriako enpresa on bezala, azkartasuna irudikatu behar da eta horretarako E eta X bitarteko geziarekin jolastu dute.

- **TERMINOLOGIA**

- Diseinua. Diseinuak argitalpenak irudi aldetik daukan estilo liburua finkatzen du. Argitalpenak irudi aldetik duen irudi-esku liburua. Ze margen izango ditun, ze orrialdetan joango den... Diseinu aldaketak 3 edo 4 urtean behin egiten dira.
- Maketazioa. Marko horren barruan zenbaki bakoitzean egiten den lanketa da. Zenbaki bakoitzean, orri bakoitzean, egindako lanketa: kazetariaren testua nola sartu, irudia non...
- Diagramazioa (diseinuaren sinonimoa) eta Konfekzioa (maketazioaren sinonimoa) garai batean asko erabiltzen ziren hitzak dira, gaur egun ez dira apenas erabiltzen.
- Paginazioa. Maketazioaren aurretik egiten dugun eskema. Gai bakoitza non kokatu, bakoitzari zenbat orri, orrialde bakoitzaren konposizioaren zirriborroa egingo dena. Eskuz, paperean, ideia bat egite aldera. Politikari 4 orri, hemen argazkia eta hemen testua, Ekonomiari... sin más aurretik egiten dan borradore moduko bat.

- **DEFINIZIOA**

- Eremu grafiko (azalera) baten gainean testuak, irudiak eta zuriak finkatzen dituen teknika da, bere helburuak edukiak egituratzea eta kazeta-informazioen hierarkizazioa nahiz irakurgarritasuna lortzea direlarik.

- **HELBURUAK**

- Definizioan aipatutakoak:

- **Egituratztea.** Kazetaren edukiak egituratu egiten ditu diseinuak, multzokatu, ordenatu eta modu erabilgarri batean lotu.
- **Hierarkizatzea.** Edukiak euren garrantziaren arabera kokatzen ditu diseinuak, (goian daudenak garrantzitsuagoak dira behean daudenak baino, ezkerrean daudenak ere garrantzitsuagoak dira eskubidean daudenak baino, normalean ezkerretik eskubira irakurtzen dugulako) Beraz diseinuaren arabera kazetariak edukiari eman dion garrantzia auteman dezake kazetariak.
- **Irakurgarritasuna bultzatzea.** Testuen arteko banaketarekin, letra tipoen aukeraketarekin, zuriguneen erabilerarekin, eta azken finean eskuartean dituen baliabide guztiekin mezu ulergarriago bat lortu behar du diseinatzaileak.

- Harold Evans. Bi helburu aipatzen ditu:

- **Argitasuna.** Irakurgarritasunaren berdina. Orrialdearen baitako edukien banaketa optimizatuz lortzen da hori, banatzeko zuriuneak eta fileteak erabiliz, edukiak hierarkizatuz, solte dauden elementuak errekuadrotan sartuz...
- **Funtzionaltasuna.** Ezinbestekoak diren elementuak erabiltzen dira soilik, ezinbestekoa ez bada hobe da kentzea.

- Bestelako helburuak:

- Erakargarritasuna / Interesa piztea. irakurleari irakurtzeko grina piztu behar zaio
- Jarraikortasuna. Estilo bat jarraituz/zainduz komunikatu behar dela. Orri kopurua ere zaindu.
- Irakurketa maila desberdinak

- **AHOLKUAK:** Brian Redding
  - Begiratu, begiratu, begiratu! ikusi ta ikasi, fijatu
  - Lapurtu, lapurtu, lapurtu! Dakigula ez gara jaiotzen eta asko gustatze zaigun zerbait ikusten dugunean hori egiten dugu.
  - Berregin, berregin, berregin! Lan borobil bat egin nahi bada, buelta asko eman behar direla. Ondo ateratzeko sistema da egitea, ibiltzea
  - Ekin, ekin, ekin!
  - Ez egin gehiegizko diseinurik.
  
- **OSOTASUNA**
  - Edukia eta forma/informazioa eta diseinua osotasun baten baitan.
  - **Jose Ignacio Armentia:** Argitalpen baten izaera edukiak bezainbeste baldintzatzen du bere diseinuak. Cuoreko portada bai lotzen da saltxo eta prentsa arroxarekin baina aldiz halako portada bat ez dezu irudikatuko ekonomiaren inguruko aldizkari batean.
  - **Harold Evans:** Kazetaritza diseinua ez da dekorazioa, kazetaritza diseinua komunikazio da.
  - **Kazetaria vs diseinatzailea?**
    - 1930eko hamarraldian sortu zen prentsan diseinatzailea figura espezializatu gisa.
    - Ordenagailuen eta interneten eraginez mugak geroz eta lausoagoak dira, kazetariak edo redaktoreak diseinu lanak egin beharko ditu. **AZTERKETARAKO:** Egia da kazetariak diseinatzaile lanak egiten hasi direla, baina egia da enpresan badagoela diseinuaz arduratzen den norbait. Diseinatzaileak ez dira desagertu, nahiz eta kazetaria multifuntzionala bihurtu.
    - Diseinatzaileak irakurri behar ditu testuak, ez da independentea beraz jakin behar du nondik nora doan ildo. Bileretan ere diseinatzailea egotea komeni da, eta alderantziz berdin. Kazetariak ez da idazteaz soilik

arduritzen, testua zein irudirekin lotu edo aztertu behar du, beti elkarlanean jardun behar dute.

## 2. HISTORIA LABURRA

- **BANDERAK**

Jamaika, AEB, Australia, Liberia, Txina (izarrak komunismoaren sinboloak), Kubakoa, Mozambiquekoa (liburuak hezkuntza, atxurak herri nekazaria, Kalasnikofa independentzia aldarrikatzeko prest daudela), Ikurrina (Arana anaiek sortutakoa 19. mende bukaeran, Gorria bizkaiako kolorea hasiera batean bizkaiarako soilik zelako, gurutze txuria kristautasuna, berdea San Andreseko gurutzea, foruak, gernikako arbola... “jangoikoa eta lege zaharra”. Jangoikoa X txuria gaineratik dago, lehenengo jangoikoa da eta lege zaharra (berdea) ondoren).

- **XVII. MENDEA**

### Zaharrenak...

- Lau orrialde.
- Azalean, titulia, data eta inpresoraren izena.
- Bigarren orrialdea, zuriz (liburuetan bezala, ez zekiten bereizten liburu bat egunkari batetik)
- Hirugarrenena, testua titulu ez informatibo baten azpian, eta hizki kapitular batekin.
- Testuarentzat letra mota bakarra, zutabe bat edo bi.. Ez zen albisteen artean inolako banaketarik egiten, bat bukatzean hurrengo albistea hasten zen.

### Beranduago...

- Titulua buruko sinple bat bihurtzen da, irudi (sinboliko) batekin.
- Aldizkakotasuna aipatzen dute. Hasieran oso irregularra zen oztopo tekniko eta legalengatik. (Orain arte ez zuten esaten ea astekaria zen, egunerokoa, hilabetekaria...)

- Kazeta izaera areagotzen da edukietan, eta baita izenetan ere: kazeta, egunkaria... Adibidez: The Daily Courant (1702) izenak berak dio egunerokoa dela.

**AZTERKETARAKO:** Euskal Herriko euskara hutseko lehenengo aldizkaria: AGOSTI XAOREN *EUSKAL HERRIKO GAZETA* 1848 (Zuzendaria Agosti Xao) eta azalean aingeru bat zuen. Iparraldekoa zen tipoa.

## ● XVIII. MENDEA

- Lehenengo egunkariak azaltzen dira: lehenengo lehenengoa The Daily Courant.
- Formatoa handitzen da, hau da, orrialde handiak hasten dira erabiltzen.
- Zutabe kopurua igotzen da
- Letra tipoak txikitzen dira
- Honekin, inpresio denbora laburtu eta albiste gehiago sartzen dira orri gutxiago zeuzkatelako inprimatzeko.
- Formatoa arrazoi ekonomikoengatik handitzen da ere. Sello bat ordaindu behar zen orri bakoitzeko, orduan hobeto formato handia egin eta orri gutxiago hala merkeago. Aldaketa ez da ematen kasualidadez.
- Diseinu modernoaren oinarri ideologiko eta sozio-kulturalak finkatzen dira: frantses iraultza eta industria iraultza.

## ● XIX. MENDEA

- Ekintza artesanaletik industrialera, aurkikuntza teknikoei esker: linoterapia, errotatiba, argazkia... Ya produkzioa ez da horren artesanala, ya produkzioa industrialera bihurtzen da.
- Orrialdeak diagramatzeko lehen saialdiak:
  - Egunkari gehiago saltzen direlako (alfabetizazioa handitzen da, garapen ekonomikoa dago).
  - Albiste gehiago sartzen direlako (agentziak sortzen dira)

- Hierarkizazio, titularren sorrera eta orrien konfekzio tipografikoa dira kezka berriak.
- Diseinuari oraindik ere ez zitzaion garrantzirik ematen...
  - Produktu hilkorra zelako: egunkaria botatzeko zenez, ez zenez gordetzen, beraien ustez ez zuen pena merezi diseinua gehiegi lantzea: total de usar y tirar, bihar ez du balio beraz gaur zaborretara.
  - Denboraren aurkako lehia diseinuaren kaltetan doalako.
  - Egunetik egunera albisteak desberdinak direnez, ez dira orriak errepikatzen.
- Ordurarte edukia ona bazen diseinuak ez zuen garrantzirik. Aldaketa dator, ulertu egiten da diseinu egoki batekin albisteen harrera hobea dela eta hobeto irakurtzen direla. Konturatzen hasten dira gehiago saltzen dutela egunkaria, diseinia hobea bada. Irakurleak diseinuari erreparatzen diola beraz orduan hasten dira diseinua gehiago lantzen.

- **XX. MENDEA**

- Formato handikoak
- Sei zutabeko oinarria.
- Zutabeak korondelekin (= marra bertikal grafikoa) banatuta eta oso mehelin (= espazio "marra" bat bertikalki) txikiak. (filetea= marra horizontal grafikoa)
- Tipografia txikia, bai testuetan eta bai titularretan. Oraindik ere letra tipo txikiak erabiltzen dituzte.
- Zuriak ez dira erabiltzen konposizio elementu bezala.
- Letra tipo eta familia asko nahasita. Gaur egun normalena da egunkari batek letra tipo edo letra familia gutxi nahastea, inork ez ditu letra familia asko nahasten.
- Bersal ugari.
- Elementu grafiko gutxi: argazkiak sartzea kostu bat zen, argazkilari bat kontratatu... tinta gehiago... denak gastuak ziren.

- Orrialdeen konposizio oso bertikala
- **20. hamarkadatik aurrera**, aldaketak:
  - Irudi gehiago.
  - Orrialdeen goikaldea, titularrarentzat.
  - Egitura bertikala utzi eta horizontala gehiago erabiltzen da, zutabe gehiagoko zabalera hartzen duten titularrekin.
  - “Eskaparate” moduko azala, egunkari osoaren laburpena den azala. Azaleko testuek, barruko orrialdeetan jarraipena. Gaur egungo azaletan duzu barruan datorrenaren aurrerapena, hemen hasten dira azala *eskaparate* moduan erabiltzen ze orain arte azalean albiste bat goitik bera agertzen ez, ez zegoen aurrerapenik.
  - Baliabide tipografiko gehiago erabiltzen hasten dira (errekoadroak publizitatetan, orlak...)
- **30. hamarkadan** konfekzionatzaileak (= maketatzailea) agertzen dira, orain arte figura hori ez zegoen. Lehen tailerretan egiten zen dena.
- **40. hamarkadan**:
  - 2. Mundu Gerrarekin, paperaren eskasia.
  - Letra tipo oso txikiak eta espazioaren aprobetxamendu handia. Bi orrialdeko egunkariak ikusten dira.
  - Elementu grafikoak minimoa. Garestitu egiten da grafikoak eta irudiak sartzea, garai hauetan testua bakarrik duten konposizioak agertuko dira.
- **50. hamarkada** trantsizio garaia da. Linotipiek berun urtuarekin lan egiten dute oraindik.
- **60. hamarkadan** aldaketa handi bat.
  - 1963.urtean New York Herald Tribunek konpaginazio modularra sartzen du. Ezagutzen dugun diseinuaren hasiera da.
  - Egitura modularrak orrialdea laukizuzenetan banatzen du, edukiaren unitate bakoitzak, bere argazki eta



gainontzeko elementuekin, azalera jakin bat hartzen du, modulu kopuru bat.



- Egunkari guztiak diseinu eta tipografiarekin esperimentatzen hasten dira.

- **60. hamarkada bukaeran...**

Fotokonposizioari esker, baliabide grafiko gehiago. Linotipia (argazkia).




- Formato/sistema berri bat sortzen da, askoz hobea dena: *Off-set-a* kolorez. Cuatricromia. RYB (Red + Yellow + Blue) → CMYK (Cyan + Magenta + Yellow + Negro).



- **70. hamarkadan:** (lehenengo aldiz hasten dira esaten prentsa krisian dagoela, nahiz eta telebista 20. hamarkadako asmakizuna izaten den, garai honetan, bigarren mundu gerraren ostean, egongo da etxe guztietan. Horregatik sartuko da krisian telebista, lekua kenduko baitio orain arte egon den prentsari) **Diseinu modernoa hemen hasten da martxan, 70. hamarkadan!**

- Telebistaren eragina. Publizitatea erakartzen du eta bere kompetentziari aurre egin behar zaio.
- Ilustrazioak apaingarri izatetik protagonista izatera.

- Edukiak antolatzen hasten dira.
- Albiste laburragoak egiten hasten dira.
- Diseinu sailak sortzen dira egunkarietan.
- Irizpideen batasuna: letra tipo eta familia nahasmen hori alde batera uzten da. Hedabide bakoitza ya hasten da esaten: nere estiloa hau da, letra tipo hau eta margen hauek hortaz lehen Estilo liburu liburuak sortzen dira.
- Tipografia berriaren erabilera: *Serif* gabeko letrak (serifarekin da ponposoago, edo gehigarriekin, buztanarekin), *Serif* gabea modernoagoa dela ulertzen da, urbanoagoa eta industrialagoa. *Serifa* duena, klasikoa. *Serifa* duena (buztana duena) hobeto ulertzen da testu luzeetan, gutxiago nekatzen delako bista, irakurgarriagoa da. Aldiz bestea erabiliko genuke kartelen batean edo jartzeko, ikusgarriagoa delako.



- Edukien hierarkizazio handiagoa. Saiatu ziren edukiak orden berdinian jartzia, alegia, kultura beti 30 inguruan, kirola 40... Horrez gain, aurkibide moduko bat.
  - Zuriguneen erabilera zabalagoa. Zuririk ez duen orrialde bat, oso satutua geratzen da orduan asi ziren zuriguneak erabiltzen, arintasun puntu bat emateko.
- **80. hamarkada:**
- Aurreko hamarkadako joerak indartu egiten dira. Telebistaren eragina are nabarmenagoa da.
  - Kolorearen erabilera letretan eta ondoetan, despieze eta leiho gehiago, erretikula hausten duten efektu



Dena esageratzen dute, koloreak, titularren tamainak... oso sensazionalistak dira.

- Hamarraldiaren erdialderako argitalpenek norbere estilo grafikoaz dihardute eta diseinua eta izaeraren arteko loturak hasten dira.

○ **90. hamarralditik aurrera:**

- Iraultza digitalaren eragina. Badaude letra mota batzuk digitalean ez duela funtzionatzen eta aldiz bai paperean, beraz, askotan, webgunerako letra mota bat eta papererako beste bat.

● **DISEINUARENGAN ERAGINA DUTEN FAKTOREAK**

○ **Louis Guéry**

- Ekoizpen teknikak.
- Gainerako komunikabideak duten eragina, telebistarena bereziki (irudietan nahiz edukietan).
- Irakurlegoaren eragina.
- Modak.

## 2.GAIA: OINARRIZKO EZAUGARRIAK

### 1. PRINTZIOPIO OROKORRAK

- **KONTRASTASUNA** (contraste)

- Elementuen arteko desberdintasunak nabarmentzea. Harold Evansek diseinuaren enfasia deitzen diona.
- Tipografia. Kontrastea lortzeko letra tamaina, pisua eta formarekin jolastu behar da.
  - **AZTERKETARAKO:** Titularrak sin *Serif* (=sans-serif), eta barruko testua edo testu arrunta *Serif*arekin
- Elementu bisualak. Albiste nagusiarri garrantzia emateko adibidez.
- Begi Erakarpen Gunea. Lehenengo bistazoan fijasen zean lehenengo gauzan (izan argazkia, izan titular bat...).

- **OREKA**

- Elementu batek ez du gehiegizko pisua eduki behar.
- Ohikoena, elementu grafiko nagusiak (titularrak eta argazkiak) espazio zuriekin edo luzera egokiko testu blokeekin inguratzea. Oreka lortzeko, titulu handi bat baldin badugu zurigunez inguratzen dugu eta horrela oreka ematen diogu.
- Bi mota:
  - **Oreka estatikoa:** Beti elementu grafiko potente bat erabiltzen badugu, ondoan elementu grafiko berdinarekin lan egitea litzateke.

- **Oreka dinamikoa:** AURRETIK jarri gabeko plantillarik gabeko sistema bat, non elementu nagusi bat izango da protagonista, bakarrarekin jolasten dezu. Elementuak garrantziaren arabera jarri, aurretik plantillarik gabe eta gero ea orekatua dagoen edo ez bergiratu.

Goran doa potentzia gehiena, bekaldeak oreka ematen du, base bezala erabiltzen da. Ezkerraldekoari sarrera deitzen zaio eta eskuinaldean dagoenari irteera, egunkaria nondik irekitzen den eta adierazten duelako, dena betetzen da logika jakin baten bidez.

- **SOILTASUNA** (menos es más)
  - Ezinbestekoa ez den guztia soberan dago. Alferrikako adornoak ez jarri, hau gehienetan hasiberriei gertatzen zaie.
  - Testu ezberdin asko sartzea tokatzen bada diseinu arin bat eman beharko zaie hauei.
  - Gogoratzeko teknika: supermerkatuko propagandak, hori da justu egin behar ez dena. Hainbeste deskontu, hainbeste kolore... daude zakarretara botatzen duzula. Egin behar ez dena hori da, gehiegi kargatzea ez da ona.
  
- **ANTOLAKUNTZA**
  - Elementu guztiak modu egokian antolatuta egon behar dute. Dispertsioa saihestu.
  - Testuaren gorputzari dagokion titularrarekiko loturak agerikoa izan behar du.
  - Erlazionatutako albisteek buruko komun bat. Hainbat albiste txiki baditugu gertaera handi batengatik, adibidez lurrikara bat edo hauteskundeak, denak ondo antolatuta eta albiste nagusiaren barnean joan beharko dira.
  - Argi egon behar du argazkia zein albisteri lotuta dagoen.
  - Errekoadroa (bertikala) eta korondelen (horizontala) erabilera. Testua apaintzeko erabiliko genituzke.
  
- **EGITURA TEMATIKOA**
  - Irakurleak nahi duen hori modu errazean topatzeko modua eskaini behar da.
  - Sailak, gehigarri tematikoak (gastronomia...)
  - Barne antolaketa tematikoa, garrantziaren araberkoa eta kazetaritza generoaren araberkoa (batez ere aldizkari tematikoetan).

- **JARRAIKORTASUN GRAFIKOA**

- Elementu grafiko berdinak beti modu berdinean tratatu behar dira. Aldizkariak bere osotasunean oreka bat edo koherentzia bat jarraitu beharra du
- Hau lortzeko:
  - Egokia da titularrak eta testu arruntak tipo ezberdin bat izatea kontrastea lortzeko baina testu batetik bestera, mantendu egin beharko da titularrerako eta testu arrunterako aukeratu dugun tipoa. (Behin aukeratuta Sin *Serif* zer joango den, ale bakoitzean hori mantenduko da. Behin horrela eginda beti egingo da berdin)
  - Sailen burukoena izena eta diseinua mantendu egingo dira zenbaitik zenbakira, azpisail berezi batzuen diseinua bateratzea ere lagungarria da. (Kulturako sailak goran jartzen dio KULTURA, KIROLA... Badaude sail batzuk txikiagoak direnak, Eguraldia, Denbora pasa... horiek denak ere berdinak izateak ematen dio homogeneousutasuna aldizkariari)
  - Testu bereziak tipo finko bat izango dute, zenbaki batetik bestera. Zita bat edo aipu bat egiten dugunean adibidez letra etzanaz egiten badugu, ale bakoitzean horrela egingo dugu, aurkibidean letra tipo bat erabiltzen badugu hurrengo aletan letra mota berdina erabiliko dugu.
  - Azken finean, estilo liburu bat sortu behar da jarraikortasun bat emateko. (Berriak duen bezala, tituluak beti joango dira 12 letra tipoan, argazki oinak beti ez dakit zer tamaina... formatu arauak basikamente)

## 2. ORRIALDEAREN ARKITEKTURA ETA BEGI EKARPEN GUNEA

- **EDMUND C. ARNOLD** 60-70. hamarkadako egunkarietako diseinatzaile ospetsua, 70.hamarkada hasieran
  - Irakurtzeko modua, ezker-eskubi, goitik-behera, haurtzarotik grabatzen da gure buruan, irakurtzen hasten garenetik.
  - Txina eta herri arabiarretan izan ezik, orrialdearen goi-ekerraldean irakurtzen hasten gara beti, mugimendu pendular bat jarraituaz lerroz-lerro (ezker-eskubi) eta behean


amaitzen dugu. Mugimendua erlojuaren norabidea izango litzateke.

○ Gutenberg-en Diagrama:

■ Hasierako eremu optikoa: Idatzita dagoen edozein orrialde batean irakurketa goi ezkerrean hasten da.

■ Amaierako eremu optikoa: Orrialdearen behe eskubian.

■ Irakurketa grabitatea: Bi puntu hauen artean indar bat sortzen da, magnetismo bat, begitik tira egiten duena batetik bestera.



■ Eremu antzekuak: Indarrik ez dutenak: goi eskubian eta behe ezkerrean. Oharkabeen pasatzen dira.

■ Orrialdeen diseinura eraman, 10:30etako formula:

● Gune inproduktiboak saihestu eta garrantzizkoak zaindu.

● Elementuak erlojuaren orratzen norabideak kokatu:

○ Lehenik hasierako eremu optikoan, gero goi eskubiko eremu antzuan, amaiera eremuan ondoren eta behe ezkerrean azkenik.

○ Hor, elementu garrantzizkoak. Horien azpitik, espazioak bete, mugimendu berdinari jarraituz.

○ Gainontzeko elementu guztiak mugimendu natural honetara itzultzen lagundu behako dute.

- **MARIO GARCIA** (Kolonbiako Unibertsitateko irakaslea) 70. hamarkada bukaeran

- Arnold-en teoriari kontrapuntua emango dion autore, eta aparte autore famatua da ze egunkari ospetxu askoren diseinuak egin ditu.
- Orrialdea ez da goitik behera konfekzionatu behar, elementu bakoitzari bere espazioa bilatuz baizik.
- Aldez aurreko planteamendu bat behar da, elementu bakoitza non kokatu nahi den argi eduki behar da eta baita orrialdearen itxura orokorra ere.
- WED (Writing, Editing, Design): Diseinu arrakastatsu batek idazkuntzaren, edizioaren eta diseinuaren integrazioa eskatzen du. Elkarlana beharrezkoa da eta batek bestearen lanean aportazioak egin behar ditu.
- B.F. Skinnerren teoretan oinarritzen da. Honen teoriak diseinura eraman ditu Mario Garciak
- Psikologo amerikar honek dioenez, espazio uniforme bat aurrean badugu (egunkari baten orri zuri bat gure kasuan) gure begirada ez da inon geratuko bereiziki. Baina orrialde horretan puntu bat badago, begia erakarri egingo du puntu horrek (begi erakarpen gunea)

berak desmontatzen du eskuinetik ezkerrera eta goitik behera irakurtze hori, dena hutsik badugu eta hiru pelota baditugu hiruak tamaina diferentekoak, lehenengo pelota handiengan fijatuko gara, gero ertainean eta azkenik pelota txikian. Egia da dena pelotaz beteta izango bagenu bai hasiko ginatekeela goitik eta ezkerretik, baina erdi-hutsa badago teoriak desmontatzen ditu honek.

- Begirada begi erakarpen gunean kokatuko da hasieran eta denbora batez hor geldituko da.
- Bigarren puntu bat jartzen badugu gune batetik bestera mugimendua sortuko da.
- Puntu gehiegi badaude indarra galtzen du.
- Puntuek norabide eta distantzia sortzen dute. Badakizu puntu handienera joango dela lehenengo, orduan jarri erdian puntu handia eta ezkerrean puntu txikia. Lehenengo puntu handira joango da (erdira) eta gero ezkerrera eramango duzu irakurlea. Zuk gidatzen duzu irakurlea.



- Mugimendu hori nahi den norabidean sortu daiteke.
- Arnoldek esaten du mugimendu natural bat dagoela, gudan barruan datorrena, honek dio diseinatzaileak erabakitzen duela ordena, puntuak leku batean jarri edo bestean jarri diseinatzaileak erabakitzen du nondik nora eramango duen irakurlea.

- **SINTESIA (Aurretik ikusitako guztia laburbiltzeko...)**

- Arnoldek irakurketa ohiturei buruz esaten duena logikoa da.
- Agian orrialde zuri batean, goi ezkerrekoa begiratu dezakegu, Skinnerren teoriaren kontra
- Arreta puntu bakar batek begirada erakarri dezake, dena den, eta mugimendu horretan distantzia eta norabidea sortzen dira.
- Logikoa da Arnoldek esaten duena, eta egia da naturalki ere joaten dela. Hortaz, sintesi moduan, biak egia direnez biak hartu daitezke balioz eta biak konbinatuz lan egin


### 3. ORRIALDEAREN ARKITEKTURAREN OINARRIZKO ELEMENTUAK

#### I. FORMATUA

- **SARRERA**

- Adin-aren zenbakia geroz eta altuagoa bada, geroz eta paper txikiagoa lortzen da, azkenean papera erdiraino doblatzen lortzen da (A2 da A1en erdia da, A3 A2ren erdia da, eta jarraian)

Abreviatura	mm
4 A0	1682 x 2378
2 A0	1189x 1682
A0	841 x 1189
A1	594 x 841
A2	420 x 594
A3	297 x 420
A4	210 x 297
A5	148 x 210
A6	105 x 148
A7	74 x 105
A8	52 x 74
A9	37 x52
A10	26 x 37



- Argiaren kasuan, DIN A4aren antzekoa da.
- Bertsolariren kasuan, Argia baino txikiagoa da beraz esango genuke DIN A5 izango litzateke.
- DIN A5 izan beharko litzateke DIN A4aren erdia
- Folioa da 2cm altuagoa DIN A4a baino.

- **DEFINIZIOA**

- Argitalpenaren formatua da honen diseinurari ekiterako unean erabaki beharreko lehen alderdia.
- **Martin Agudoren** definizioa: Inprimaki baten tamaina, erabili den orrialdearen zabalera eta altuerak zehazten dutena.

- **Nork esan duen, ikasi azterketarako**

- Neurriak milimetrotan edo zentrimetrotan eman daitezke. Zabalera adierazten da lehenengo eta altuera ondoren.

- **MOTAK**

- Formatu klasikoak: oinarritzat folioa hartuz eta tolesketak erditik modu horizontalean eginaz, sortzen direnak. Garai batean liburugintzan hauek ziren erabilienak
- Formatu normalizatuak: Inprentetako tekniken garapenetik sortuak. DINA0aren tolesketetatik sortuak. Folioarekiko tamaina ezberdina dute.
- FOLIOA 215 mm x 315mm - DINA4: 210mm x 297 mm.
- Tolestetze bakoitzarekin gora egiten du DINAREN zenbakiak: DIN0, DIN2, DIN2
- Normalizatuak ez diren guztiak formatu berezizat hartzen dira, baita klasikoak ere. Edozein kasutan gaur egun bereziak erabiltzen dira normalizatuak baino gehiago.


- **MARJINAK ETA KAXA**

- (Zein dan benetan inprimatuko dugun azalera, hortik gero zutabeak eta aukeratzeko)
- **Kaxa edo mantxa**: orrialdearen baitan inprimagarritzat jotzen den azalera.
- **Marjina**: Kaxa eta formatuaren kanpoko ertzaren artean zuriz utzi ohi den tartea. Orrialde guztietan utzi ohi da.
- **Odola**: Salbuespen gisa, diseinu alorreko erabaki baten ondorioz marjinetan inprimatzen dena. (Antxokak jarritako izena)
- *A sangre* maketatzea eskatzen dute, horrek esan nahi du Margenak ez direla errespetatuko (salbuespenak dira, baina ohi baino gehiagotan egiten da... malo)


## II. ERRETIKULA

### • DEFINIZIOA

- **Daniel Tena:** Erretikula orrialdearen osaera zehazten duen egitura ezkutua da, diseinu eta maketaziorako espazioaren oinarritzko banaketa. Orrialdearen baitako elementuak ordenatu, argitu eta hierarkizatzeko lana errazten du.
- **Laura González eta Pedro Pérez:** Argitalpenaren bizkarrezurra da, gidalerro horizontal eta bertikalekin marjinen posizioa, zutabeen ertzak, idazketarako lerroak eta hauen arteko espazioak finkatzen dituen egitura ikusezina. Diseinu lan guztien abiapuntua erretikularen eraikuntza da, honek ematen baitie batasuna eta egingarritasuna.



RETÍCULA



DISEÑO BASADO  
EN LA RETÍCULA



DISEÑO FINAL  
CLARO Y ARMÓNICO

### • ERAIKUNTZA


Honako pausuak ematen dira:

- Argitalpenaren formatoa zehaztu.
- Marjinak zehaztu.
- Erabiliko den letraren tipoa, gorputza eta tamainak erabaki.
- Lerroarteko espazioaren tamaina erabaki. Normalean lerroarteko espazioa letraren tamaina baino puntu erdi bat edo puntu bat handiagoa izango da. Adibidez 9 bada, 0,5 edo 1 gehitu, hau da 9,5 edo 10.
- Aukeratutako letraren eta lerroarteko tamainaren arabera kajak zenbat lerro izango dituen kalkulatu eta erretikulan marraztu.


- Zenbat zutabe nahi ditugun eta zutabe arteko espazioa (mehelina) zenbatekoa nahi dugun erabaki eta horren arabera kaja gidalerro bertikaletan banatu.
- Lerro horizontalen eta bertikalen ebakiduratik moduluak sor daitezke. Guztiek neurri bera izan behar dute eta, beraz, lerro horizontal kopuru berdina izan beharko dute.

Retikulan ateratzen diren kuadradoak:  
Moduloak

Modulo guztiek lerro kopuru berdina izan behar dute, bestela ez dira berdinak.



- Artean, naturan (erleen ezti-paneletan), bideojokoek barruan ere retikula mantentzen da, imaginarioa bada ere:



## ● ABANTAILAK


- Orrialdearen planifikazioa errazten du.
- Erredaktoreen eta maketatzailen arteko elkarlana errazten du.
- Elementu guztiak lerrokatzen ditu automatikoki.
- Azken finean orrialdea antolatzeko modu arrazional objektibo eta garbi bat eskaintzen digu, ofizioan konbentzio bihurtu dena eta honen garapena ahalbidetu duena.

### III. TIPOGRAFIA.

#### ● LETRAREN ANATOMIA I

- **Serif-a** daraman edo errematea duen
- **Goranzkoak:** Minuskulen ohiko altueratik gora irteten diren trazuak. [“f” eta “g” letrek, adibidez, gorantz edo beherantz edukiko duten *luze* geratzen zaien letra zati hori (eztakit ulertzean)]
- **Beheranzkoak:** Behetik irteten direnak.
- **Makilak:** letraren irudi orokorra osatzen duten lerroek osatzen dute. Letraren gainerako elementuak baino lodiagoak izan ohi dira.
- **Oinarrizko lerroa.** Letrak finkatzen diren lerro imaginarioa.
- **X altuera:** Letraren tamaina, goranzko eta beheranzkoak kenduta. Hau da, Bokalen tamaina, i-a salbu.

#### ● LETRA ESTILOAK

- **Printzipio ortografikoa:** maiuskulak, minuskulak, bertsalitak (letra maiuskulak dira baino minuskulen tamaina dute). 
- **Lerroen egoeraren arabera:** borobilak (ez kursiva) edo italikoak (etzana edo kursiva).
- **Lodieraren arabera:** oso fina, fina, beltza, oso beltza.
- **Zabaleraren arabera:** estua, normala, zabala.

▼ Proxima Nova	○ Sample
Thin	○ Sample
Thin Italic	○ Sample
Light	○ Sample
Light Italic	○ Sample
Regular	○ Sample
Regular Italic	○ Sample
Semibold	○ Sample
Semibold Italic	○ Sample
Bold	○ Sample
Bold Italic	○ Sample
Extrabold	○ Sample
Extrabold Italic	○ Sample
Black	○ Sample
Black Italic	○ Sample

## • LETRA TIPOA

- Letra tipoa eurak diseinu lan bat dira. Garai konkretu batean eta toki konkretu batean norbaitek asmatutakoak.
- Euren itxurak eta historiak esanahi batzurekin lotu izan ditu. Adibidez:

Courier	Ofizialtasuna
Old English	Erdi Aroa
Impact	Energia
Bauhaus	Modernoia
Times New Roman	Autoritatea

## Spumoni LP Regular

Infantila

Mambo Medium

Alaia

- Ruber stamp: Inestabilidadea (tipico universitario estadounidense)



- Euskal tipografia

ABCDEFGHIJ  
KLMNÑO  
PQRSTU  
VWXYZ  
1234567890

## • AHOLKUAK

- Letra motarik irakurgarriena aukeratu:
  - Serif-dunak irakurgarriagoak dira serif-gabeak baino.
  - Letra motaren X altuera aztertu: irakurterazagoak
  - Makilak oso beltzak direnean nekatu egiten du irakurketa.


- Testu luzeak italikoan (kurtsiba) testu luzetan saihestu behar dira, mantsotu egiten dute.
- 8 gorputza txikiegia da, normalean 9tik aurrera.

- **LETRAREN ANATOMIA II**

Kontrastea: Letraren makiletan lodierak aldaketak

Modulazioa: Kontrastearen norabidea markatzen du.

- Bertikala: Kontrastea goitik behera doa.
- Zeiharra (oblicuo): Kontrastea diagonalean egiten da.



- **ALEX BROWNE SAILKAPENA**

Hainbat sailkapen: Thibaudeau (1921), Vox (1953), Pelliteri (1963)... Alex Brown-ena (1991) nagusitu da.

- Serifarekin
  - **Aintzinakoak:** Jatorrizko familiak dira, XVI. mendekoak. Idazkera erromatarraren garapenetik sortu ziren. Bembo italian, Carlos Inglaterran eta Garamond frantzian. Ezaugarriak: Erremate diskretuak, kontraste gutxi eta modulazio bertikala.]]]

## Garamond

AaBbCcDdEeFfGgHhIiJjKk  
 LlMmNnÑñOpPpQqRrSsT  
 tUuVvWwXxYyZz  
 1234567890 “” ; ; ¡ ! ¿ ? \*

- **Transiziozkoak:** Letra zaharren eta modernoan arteko eboluzioa da. XVII. mendekoa. Modulazio bertikala eta kontraste handikoak.

Baskerville

Times New  
Roman

Gainera: Caledonia, Electra

- **Modernoak:** XIII. mendean garatuko dira. Erremate finak eta lotura finak, kontraste altua eta modulazio bertikala.

Gainera: Modern 20

Bodoni

- **Kaligrafikoak:** modulazio zeharria, x altuera handiagoa, erremateak ere zeharriak, kontraste handia

Beste bat: American Uncial

Palatino

- **Erremate leunekoak:** Serifa oso markatua eta borobildua, kontraste gutxi eta modulazio bertikal nahiz zeharria izan daiteke. Publizitate sortutako letra tipoak dira.

Souvenir

ABCDEFGHIJKLMNOPQRSTUVWXYZ

abcdefghijklmnopqrstuvwxyz

0123456789 . , ! ? - \_ : ;

Beste bat: Type Writer



- **Erremate zorrotzekoak:** XX. mendekoak. Erremate txikiak baina zorrotzak. Makil lodiak. Bertikala.

Beste bi: Novarese, Cuorum

## COPPERPLATE

- **Erremate lodikoak:** Erremate oso markatuak eta makil lodiak eta modulazio txikia. Bertikala.

### Bookman

ABCDEFGHIJKLMNOPQRSTUVWXYZ

abcdefghijklmnopqrstuvwxyz

0123456789 . , ! ? - \_ : ;

- **Normadoak:** Kontraste oso handia eta modularitate bertikala. Erremate finak. Indar handia. Rotulaziorako erabiliak.

Nubian eta Ultra Bodoni

- **Egipziarrak:** Publizitatetik datoz. Kontraste gutxikoak eta modularitate bertikalak.

## Rockwell

- **Erremate laukikoak:** Publizitate mundutik dator baita ere. Erremateak laukiak ditu, motzak. Makil lodiak.

## Playbill

○ Serif gabe

- **Groteskoak:** XIX. mendean. Kontraste mugatua.

**Franklin Gothic**

□ 6F1000179 | 6F Franklin Gothic

Franklin Gothic

□ AD1000332 | JTC Franklin Gothic Std Condensed

Franklin Gothic

□ AD1000331 | JTC Franklin Gothic Std Compressed

**Franklin Gothic**

□ AD1000302 | Franklin Gothic Std

Franklin Gothic

□ AD1000303 | JTC Franklin Gothic Std

Gill Sans

Beste bat: Optima

- **Grotesko berriak:** XX. mende erdi aldera. Kontrasterik gabe.

**Arial Futura**

Beste batzuk: Helvetica, Universe, Avand Garde

○ Errotulatuak (idatziak). Eskuz idatzita egongo balira bezalakoak dira. Batzuk oso zaharrak dira, jatorria eskuizkributan baitute.

- **Kaligrafikoak:** Letren artean loturak egon daitezke, eta letren trazuak oso borobilak dira.

*american uncial normal*

- **Gotikoak:** Oso bertikalak dira, trazoak eta zorrotzak eta zuzenak dira, kontraste oso nabarmena dute eta ez dute loturarik letren artean. Konbertsazio handia, trazuak konplexuak. Ez dira batere irakurterazak.

**Old English**

- **Eskuizkribuak (script):** Trazuak oso borobilduak daukate, etzanak dira, eta letren artean loturak izaten dituzte.

*Brush*

- **Etzanak:** eskuizkribuen ezaugarri berberak izaten dituzte, letren arteko lotura ezik.

*Park Avenue Normal*

- Apaingarri-tipoak, edo dekoratiboak: Aurrekoetan sartzen ez diren guztiak
  - **Fantasiakoak:** estetikoki konplexuak eta nabarmenak dira. Ezohiko efektuak erabiltzen dituzte: sinboloak, itzalak, etab. Logoak eta hitz motz eta tamaina handikoak egiteko erabiltzen dira.



- **Garaikoak:** Garai jakin bateko esentzia edo espiritua aditzera emateko diseinatuta egoten dira.

**DSROMANTIQUES**

## ● PATTERSONEN ONDORIOAK

Pattersonnek emandako aholku batzuk: Boluntario asko irakurtzen jarri zituen eta ondorioztatu zuen...

1. Letra tipo arrunta azkarrago irakurtzen da italikoa (kurtsiba) baino. Kronometratuta letra kurtsiban normala baino 15,5 hitz gutxiago irakurri dezakezu. (minutu batean).
2. Lerroaren luzeerak eragina dauka. Lerro oso motzak edo oso luzeak izatea nekatu egiten du irakurtzeak. Neurri ideala 50-60 karakteren artean izango litzateke.
3. Minuskulak segundoan hitz erdi bat gehiago irakurtzen da.

4. Justifikatuta dauden testuak errazago irakurtzen dira. Bi aldetatik justifikatutakoak izan ziren boluntarioendako errazenak irakurtzen.
5. Koloredun kutxek (koloretako fondoak) irakurketa %15 moteltzen du.
6. Ez da testuaren irakurketaren jarraikortasuna hautsi behar.

#### IV. ZUTABEAK

- **ABANTAILAK**

- Irakurgarritasuna erraztu. Estuegiak ez diren bitartean. Zutabea zabalegia bada begia nekatu egiten da (Pattersonen ustez 60 karaktereko lerroak aproposena), eta motzegia bada, esaldiak ulertzeko zailtasuna (esaldi bakoitzak hiru lerro irauten badu, galdu egiten da irakurlea).
- Antolakuntzan lagundu. Gure edukiak antolatzen laguntzen dute zutabeek.
- Konposizio errazagoa (zabalera berdina).

- **KOPURUA**

- Kopuru bikoitia. Zutabe kopuru bikoitiek, 2-4 dira ohikoenak, simetria eta estabilitatea eskaintzen dute. Kopuru handiagoarekin jolaserako aukera gehiago.
- Kopuru bakoitia. Zutabe bakoitiek dinamismoa eskaintzen dute. 3-5-7 da ohikoena.
- Zutabeak egunkarietan. Tabloideetan 4-5, maindire gisakoetan 6-7-8
- Aldizkarietan. 3-4 da ohikoena, baina egunkarietan baino askatasun gehiago. Erretikula ezberdinen konbinazioa ere baliatu ohi da.

## • NEURRIAK


- Naturalak: Konposizioa erretikulan ezarritako zutabe kopuruaren arabera gauzatzen denean
- Faltsuak: Neurri naturalak errespetatzen ez direnean.
- Mehelina: Zutabeen arteko hutsuneari deitzen zaio -medianil-, hutsune horretan ezer ez dagoenean (korondela ez dagoenean). Beste izenez ezagunak: Kalea edo Korondel itsua.
  - Lerroarteko espazioarekin gertatzen zen bezala, hau ere estuegia edo zabalegia baldin bada arazoak eman ditzake. Zabalegia: dispersioa. Estuegia: itogarria
- Zuriune bertikal gehiago daude:
  - Hitz-arteak, espazioak, laukiak edo kuadrantinak.
    - Kuadrantina: Letrak egiteko moldeari deitzen zaio.
  - Tracking eta kerning: Letren (karaktereen) artean dagoen hutsunea aldatzen du. (InDesign-eko bi elementu ere badira; proiektuan erabiliko ditugu)

Track edo tracking: testu oso batean dauden karaktereen arteko hutsunea aldatzen du.

Kern edo Kerning: bi karaktere jakinen artean egoten den hutsunea aldatzen du.

- Kerning metrikoa: hutsune berbera utziko du karaktereen artean.
- Kerning optikoa: hutsune ezberdina uzten du karaktereen artean, hauen forma kontuan hartuz.

Printzipio orokorrak + ikerketetan oinarritutako teoriak + oinarritzko elementuen inguruko pistak



“Arauk” + Sormena.

Eman dizueten guztia ezagutu behar da lana ondo egiteko, baina gero zuek zerbait berria asmatu beharko duzu. Arauak errespetatzea garrantzitsua da baina imaginazioa behar da eta zerbait berria sortu behar da.

# 3.GAIA: EGUNKARIEN ORRIALDE DISEINUA

## 1. ORRIALDEAREN ARKITEKTURA

- **AZALA**

- Argitalpenaren erakusleioa da. Lehena ikusten dena. Kioskoan gure argitalpena beste argitalpenetik bereizi dezakeena. Beraz, diseinu aldetik ere atalik garrantzitsuena da.
- Harold Evans: Azalak ezartzen du egunkari baten nortasunaren, jitearen (karakterra) eta freskotasunaren lehen zantzua. Azalak publikoa behar du egunkaria erostera joango dena, irekiko duena eta irakurtzera bultzatuko duena.
- Elementuak
  - Logoa/mantxeta
  - Albiste nagusia
  - Bigarren mailako albisteak
  - Fotoalbistea/ fotonotizia
  - Sumarioa / deia: Irakurketarako dei modura barruko eduki baten titular (azpigitular edo testu txiki bat baita sarritan) bat jasotzen dutenak.
  - Indizea / aurkibidea: Barruko sail-eduki nagusiak ze lekutan dauden adierazten diguna.
  - Leihoak: Sumarioaren antzekoak baina diseinu aldetik bereziki azpimarratzen dira, fondo bat jarrita, argazki bat jarrita...
- Tipologia
  - Erakusleio gisakoak: Eguneko eduki garrantzitsu gehienak ematen ditu azalera. Formatu txikian aurrerapen bat eskaintzen du, barruan erabiliko diren letra tamaina berdinekin eta material grafiko gutxirekin.
  - Kartel gisakoak: Publikoaren arreta lehenestea lortzen dute beste ezerekin gainera. Eduki bakarra edo pare bat

azpimarratzen dira, orri osoa hartzen duten titular eta argazkiekin. ABC da tipologia hau erabiltzen duen ohiko egunkaria

- Seinalea eta testua eskaintzen dutenak: Eduki nagusi batean zentratzen dira, baina ikusgarritasuna bilatu beharrean eduki hori garatzea da helburua Egunkari oso tradizionaletan. Oso tradizionalak badaude, baina diseinu aldetik ez dago bat esateko hau da aurreko mendekoa. Gehienek eboluzionatu egin dute.

- Tipikoa


- Orrialdea hiru zatitan banatzen da horizontalki. Ez dute zertan hiru banda horiek tamaina bera izan.
- Bertikalki elementu batek hausten du banaketa hori.
- Normalean, horietako bi zati bildu ditzake.
- Fotoalbistea gune berezi bat da, dagokion argazki oinarekin beti.

- Azala eta azken orria

- Kazetaritza diseinuaren inguruko teorikoek garrantzia handia. Azalaren luzapena da nolabait.
- Azken urteetan pisua galdu du eta diseinu aldetik ere berrikuntza gutxi.

- **BARRUKO ORRIALDEAK**

- Barruko orrialdeak binaka ikusi ohi dira maketan, orrialde kontrajarria deitzen zaio honi. Binaka badaude: orrialde kontrajarriak. Portadatik hasten da kontatzen beraz. Ezkerraldekoa beti izango da bikoitia eta eskuinekoa bakoitia.
- Goialdeari burukoa deitzen zaio eta beheko aldeari oina.
- Kanpoko marjinei ebakidura
- Barruko marjinei bizkarra



- Dinamismoa lortzeko formula ezberdinak erabiltzen dira:
  - 5 zutabetara normalean
  - 4-1 edo 1-4
  - 3-2 edo 2-3
  - 1-3-1
  - 2-2-1 edo 1-2-2 (Gutxiagotan azaltzen da hau)
- Dinamismoa lortzeko orrialdea bi zatitan banatzen da, eta formulak konbinatu. Goikoa izaten da nagusitzen dena.
- Orrialde monografikoa: Gai baten inguruko pieza bakarrak betetzen duena.



- Orrialde kontrajarriak monografikoak badira osotasun bat bailiran maketatu behar dira (alegia, indibidualki maketatu ordeztan orrialde bakoitza, “doble” moduan)
- Publizitate normalean beheko aldean eta ebakiduraren kontra jarri ohi da.
- Orrialde bakoitietako publizitatea gehiago ordaintzen da gehiago ikusten delako.
- la orri osoa hartzen duen publizitateari orri apurtzailea deitzen zaio.

## 2. ORRIALDEAREN FORMATUA

- **MAINDIRE FORMATUA**

- Egunkari handiek orain arte erabili duten formatua
- Neurriak: 40-45 x 50-60 cm
- Kontra:
  - Irakurketak erosotasun bat eskatzen du, eta ez da egokia espazio txikietan irakurtzeko.
  - Irakurtzerakoan arreta mantendu behar da orrian ez galtzeko.
  - Informazio luzeegiak askotan.
- Alde:
  - Albiste asko sartzen dira, eskaparate ona
  - Argazki handiak edo oso handiak argitaratu daitezke. Guk ezagutzen ditugun tabloideak ez dira inoiz iritxiko hauek egiten dituzten gauza espektakularretara, ezinezkoa da.
  - Albiste asko baldin badaude, testuak eta argazkiak txikitzea nahikoa da.

- **TABLOIDE FORMATUA**

- Prentsa sentsazionalistarekin identifikatu izan da baina kalitatezko prentsak geroz eta gehiago erabiltzen du: *The Times*.
- Aintzindaria: lehenengo periodiko serioa tabloidearekin ausartu zena El PAÍS. Espainian orian gehienak dira tabloideak, El País hasi zelako.
- DIN A4 direnak: ABC eta La Razon (turistentzat deigarria da ze hasieran uste dute aldizkariak direla, arraroa egiten zaie egunkari bat neurri horretan ikustea)
- Neurriak: 25-30 x 40-45 zm
- Kontra:
  - Albiste garrantzitsuak orri askotan doaz, ez dira bakarrean sartzen
  - Albiste asko badaude, orri gehiagotara joan behar da.
  - Erakargarritasun gutxiago: ezin dituzu elementu handi horiek jarri, argazki irudi horiek...
- Alde:
  - Orriak txikiagoak badira, kolpe batean irakurri daitezke.
  - Irakurtzeko esfortzu txikiagoa eskatzen du.
  - Edonon irakurri daiteke, tamaina erabilgarriagoa delako.
  - Maketatzeko errazagoa da.

### 3. BURUKOA

- LOGOA

- Egunkariaren izena da logoa. Elementu grafiko bat da, letraz osatua egoten den arren.



(argitarapen horretan espetxean dauden euskal preso zenbakia)

- **GARA**ren kolore aldaketaren arrazoia: zuri beltzean inprimatzea merkeagoa da, eta horrela bide batez sinbolikoagoa da: Urtarilean EGINen gizarte segurantzaren zorra pasa zionez GARArri Espainiako Gobernuak, hori ere irudikatzen du. (*Continuidad de empresa, cosa que no se ha hecho nunca*)
- Logoa + erregistro datuak (data, zenbakia, urtea, helbiea)
- Lelo bat ere ager daiteke (El Mundok egunero aldatzen du logoaren azpiko esaldia, beti dira famatu baten hitzak eta eguneko albisteeekin lotua egoten da)



- Kokapenagatik
  - Pastilla: Logoak ez duenean zabalera hartzen, baizik eta kaja txikiago batean dioa, hau da, errekuadro baten gainean.
  - Zabalera osoan. (adb: El Diario Vasco, Gara,...)



#### 4. TITULAZIOA

- **TITULAR NAGUSIA**

- Titularrek XIX. mendean hartzen dute garrantzia.
- Testuko daturik garrantzitsuenak aipatzen dute, normalean Nor? edo Zer? galderei erantzuten die.
- Idazkuntza balioa izan behar dute, hau da, ahal den era laburrenean informazioaren mamia eman.
- Berezko zentzua izan behar dute, aurretitulu eta azpigituluaren beharrik gabe zentzua izan behar dute. Titular bat jarri eta ulertzen ez dana, titular txarra izango da.
- Aditz bat izan behar dute. Aditza ez duten titularrak txarrak izango dira.
- Irakurterrazak eta deigarriak izan behar dute.
- Hitzak ezin dira erdibitu.
- Letra larria eta xehea testu arruntean bezala.
- Ez dute amaierako punturik.
- Galdera eta harridura ikurrak saihestu behar dira. Informaziozko egunkarietan ez da oso logikoa titularrak galdera edo harridura ikurra izatea.
- Bi puntuak bakarrik esaldi testualetan

## 5. TIPOGRAFIA

### • TITULARRA

- Letra lodian jo ohi dira, baina ez lodienean.
- Neurriak:
  - 5 zut 32-40 tamaina
  - 4 zut 24-30
  - 3 zut 24-30
  - 1-2 zut 18-22
- Lerroak:
  - 5 zut 1 lerroko titularra
  - 4 zut 1-2 lerroko titularra
  - 3 zut 2 lerroko titularra
  - 2 zut 2-3 lerroko titularra
  - 1 zut 3-5 lerroko titularra
- Lerroarteko espazio justua. 40 puntuko tamaina batekin bagaude, interlineadoa ez dadila 2 puntukoa izan ze bestela separatuegia. Antxokak beti ematen du 1,25... 1,5 asko jota. Baina ez 1 baino gutxiago.
- Gainean azpikoaren zuriune bikoitza. Kontuz, batzuetan titularra alde batera eta gorputza beste alde batera geratzen da. Titularra eta gorputzaren artean dagoen titularra X bada, goikoa doblea izango da.
- Titularrak normalean ezkerretara justifikatzen dira. Oso oso gutxi dira erdian eta eskuinean justifikatuak doazenak.

- **AURRETITULUA ETA AZPITITULUA**

- Aurretitulua eta azpitulua titularra baino tamaina txikiagoan joan ohi dira, eta esaldi laburragoak izan ohi dira.
- Arraroa da biak batera erabiltzea, normalean bietako bat aukeratu ohi da.
- Normalean aurretituluak non eta noiz galderei erantzuten die, eta azpitulua nola eta zergatik galderei.
- Titularra laguntzen dute baina hauek sintaktikoki independenteak dira.
- Estilo aldetik pisu gutxiago jartzen zaie normalean, eta batzuetan letra etzanean ere jarri izan dira.
- Ez doaz maiuskulan
- Normalean ezkerrera justifikatua

- **SARRERA EDO LEAD**

- Ezaguna suertatuko zaizue, irakurlea kokatzeko 5W-ei erantzunaz albistearen muina jasotzen duen lehen paragrafoa da.
- Erreportajeek edo elkarrizketek ere izaten dute sarrera paragrafo bat, libreagoa.
- Orrialde bakoitzean sarrera bat baino gehiago ez da jartzen. Testu nagusiari dagokio soilik. Bigarren mailako albisteek ez dute sarrerarik izaten.
- Gorputzetik bereizteko letra lodian joan ohi da eta gutxienez bi zutabeko zabalera izaten du.
- Normalean gorputzeko tamaina bera izan ohi du, baina testu handietan punturen bat igo daiteke.
- Sarrera hori normalean paragrafo bakarra izaten da, normalean 6-8 lerro izan ohi ditu eta gehienez 10-12 lerro.
- Normalean gorputzarekin batera honen aurretik joan ohi da, baina aldizkarietan lan luzeak direnean, irekiera orrialdeetan ere jar daiteke.

- **TARTEKIAREN (LADILLO)**

- Hurrengo paragrafoen edukia aurreratzen du, informazio luzeak egituratzeko eta irakurlea espazioan kokatzen laguntzeko.
- Atsedena ere ematen dute testu luzeetan.
- Titulazioaren baitako baina autonomo. Tartekia titulazioaren parte kontsideratzen da baina tartekia kenduta ere, testua ulertu behar da. Ezin dira errepikatu titularretan erabilitako ideiak.
- 50 lerro baino gehiagoko testuetan erabiltzen dira, 4-5 paragrafotan behin.
- Beltzean joaten dira (negritan), gorputzeko testua baino tamaina handiagoan.
- Lerro bakarrekokoak eta punturik gabe.
- Zutabearen amaiera artean 2-3 lerrotako espazioa.
- Tarteki arruntak / Jarraipenezkoa.

- **TESTU ARRUNTA**

- BLOKE KALIGRAFIKOA (JUSTIFIKAZIOA)**

- Bloke kaligrafikoa: gorputzeko testuaren lerrokatzea. Eredu nagusiak:
  - Justifikatuta edo blokean. Ezker zein eskuin Lerrokatzen dira lerroak. Erabiliena. Gainerakoak aldizkarietan eta gehigarrietan erabiltzen dira baina egunkarietan ez. Irakurtzeko erraza eta orden sentsazioa.
  - Epigrafe moduan. Erdian dagoen ardatzaren inguruan. Hitzen partiziorik ez. irakurtzeko zaila. Orijinala.
  - Bandera ezker/eskuin. Bandera ezkerrean duena da irakurtzeko zailena. Hitzen partiziorik ez. Orijinala.
  - Ertzatua. Lerrokatze irregular bat ematen da irudi baten inguruari jarraituz. Originala eta teknikoki konplikatuena

#### JUSTIFIKAZIO MOTAK:

- ★ Justifikatua edo blokean: Bitara justifikatua
- ★ Epigrafe moduan: Erdian
- ★ Bandera eskubian: Ezkerrea justifikatua
- ★ Bandera ezkerrean: Eskubira justifikatua

#### PARAGRAFOA ETA KOSKA

- Paragrafoek testua atal laburragoetan egituratzen dute. Irakurgarritasuna eta ulergarritasuna errazten dute.
- Paragrafo berri bat hasten dela adierazteko honen lehen lerroa tarte bat eskuinerago hasten da, zuriune bat utziaz. Zuriune horri koska deitzen zaio (sangría gazteleraz)
- Lehen paragrafoak ez du koskarik izaten.
- Koskatzea (sangradua) espazio kuadrantin batekoa izaten da. Zabalera handiko paragrafoetan bi edo gehiagokoa izan daiteke.
- Egunkarietan paragrafoaren artean ez da lerrorik uzte zurian. Koskatzea (sangrado) bada nahikoa seinale paragrafoak bereizteko eta lerro zuria alferrikako espazio galera bat litzateke

#### PARAGRAFO MOTAK

- Paragrafo koskaduna (con sangrado). Lerro guztiek luzera berdina baina lehenengoa motzagoa.
- Paragrafo frantsesa. Kontrakoa. Lerro guztiak moztuak lehena izan ezik.
- Paragrafo alemana. Ez da tarterik jartzen, baina parrafo ezberdinen artean espazio bikoitza jartzen da.
- Letra kapitularra. Lehenengo letrak testuaren konposizioaren lerro bat baino gehiago hartzen du.
- Parrafo lotuak. Normalean bakarrik lehena da eta lehen hitzak beste estilo batean doaz. Bertsalidak (beti maiuskulatan)...



## Adibideak:

**FRA.** La línea es una sucesión de caracteres y espacios que ocupan una medida determinada. La longitud de una línea es la anchura máxima de la composición de una línea de texto. Puede establecer un promedio mínimo de siete palabras o cincuenta caracteres por línea y nunca más de setenta, salvo en casos muy específicos. Deberá equilibrarse con el interlineado, ya que en una longitud de línea larga se precisará un interlineado mayor. Se debe indicar en cíceros y puntos de cícero.

Un modo práctico es dividir el número de picas del ancho de columna por el cuerpo en puntos. El resultado obtenido se suma al cuerpo y corresponde a la interlínea, utilizando puntos de cícero.

**AL.** La línea es una sucesión de caracteres y espacios que ocupan una medida determinada. La longitud de una línea es la anchura máxima de la composición de una línea de texto. Puede establecer un promedio mínimo de siete palabras o cincuenta caracteres por línea y nunca más de setenta, salvo en casos muy específicos. Deberá equilibrarse con el interlineado, ya que en una longitud de línea larga se precisará un interlineado mayor. Se debe indicar en cíceros y puntos de cícero.

Un modo práctico de establecer la interlínea es dividir el número de picas del ancho de columna por el cuerpo en puntos. El resultado obtenido se suma al cuerpo y corresponde a la interlínea, utilizando puntos de cícero.

## AHOLKUAK

- Testuen antolaketa aukeratzean:
  - Ezkerretara justifikatutako paragrafoak errazago irakurtzen dira.
  - Koska ala espazioa erabili daitezke paragrafo hasieran, baina ez biak batera.
  - Espazio zuriak titularraren gainetik bai, baina ez banatu titularra dagokion testutik.
  - Ez nahastu letra mota ezberdin asko.
- Lerro alargunak saihestu: Paragrafo baten azken lerroa zutabe baten lehen lerroan bakarrik gelditzen denean deitzen zaio alarguna.
- Lerro umezurtzak saihestu: Paragrafo baten lehen lerroa zutabe baten azken lerro gisa bakarrik gelditzen denean deitzen zaio umezurtza.

- Paragrafo batean azken lerroak ezin du deitu bi hotz baino gutxiago izan.
- Lehen lerroa bakarrik → umezurtza ----- azkenengo lerroa bakarrik → alarguna

- **BALIABIDE TIPOGRAFIKOAK**

- **MARRAK**

- Hariak (fileteak) eta korondelak
  - **Hariak:** marra horizontalak
  - **Korondelak:** marra bertikalak
  - Informazio edo elementu bakoitzarentzat espazio bat zehazten dute.
  - Irakurketa erraztu eta funtzio estetiko bat bete dezakete.
  - Lodierak oreka mantendu beharko du orrialdeko gainerako elementuekin. Lodiegiak direnak saihestu.
- Lodiera: Tradizioz, izen bat jarri zaie.
  - 0.5 baino gutxiagokoak: **Oso meheak**
  - 0.5 - 1 puntukoak: **Meheak**
  - 2-3 puntukoak: **Erdi-lodiak**
  - 4-5 puntutakoak: **Lodiak**
  - 6 baino handiagokoak: **Doluak** (lutos)
- Egitura:
  - **Simplea:** Marra bakar bat
  - Tamaina **bereko bi marra** paralelo: Kana (Caña)
  - Tamaina **ezberdineko bi marra** paralelo: (normalean mehe bat eta lodi edo lodierdi batez osatua) kanerdia.

- Tamaina **ezberdineko hiru marra** paralelo: Normalean bi mehez - ertzetakoak - eta loderdi batez - erdikoa - osatuta): Fantasiatzkoa
- Marraskia: Marra osoa, puntuak (puntillado), trazoak (gidoiak), zigzag moduan (tremble), uhinak eginaz (serpentina)...

## ERREKUADROAK

- Hariak eta korondelek errekuadro bat osatzen dutenean
- Orrialdeko informazio bat azpimarratzeko balio dute.
- Pieza oso bat zedarritzeko ez ezik pieza baten baitan zatidurak bereizteko ere balio dezake.
- Erregularrak edo irregularrak izan daitezke, irekiak edo itxiak, borobilduak...
- **ZATIDURA**: erreportaje baten barruan azpialal moduko bat: etorkinen inguruko erreportaje batean, demografiaren inguruko datu gehigarriak zatidura batean sartuko genituzke. Zatidurek ohiko tipografiarekiko ezberdina den estilo bat izaten dute

## ORLAK

- Marren kateaketa bat izan ohi da, nahiko lodia.
- Apaingarriak izaten dira eta egunkarietako orrialdeetan zailak dira ikusten.
- Gradu amaierako argazkiak orla izena du, eta hemen dator izena: argazki horri jartzen zaion koadroari deitzen zaio orla.

## LETRA KAPITULARRAK

- Testu arruntaren tamaina baino handiagoa dutenak, testuaren hasieran txertatu ohi dira.
- Erdi aroko miniaturretan dute jatorria. Orduan hasi ziren liburuetakoko kapitulu bakoitzari hasiera letra handiago batekin ematen.
- Letraren tamaina kontuan hartuz neurtu daitezke, edota betetzen dituen lerroak kontuan hartuz (askoa praktikoagoa).
- Kapituluaren edo idatziaren lehen letra maiuskulaz. Garai batean marrazkilari batek egiten zuen, Erdi Aroan eta horrela. Aspaldiko tradizioa da baino jarraitzen da erabiltzen.
- Letra kapitular motak:

### Konplikazio mailaren arabera

- Loratuak: kargatuak, *rokoko* estilokoak, letra gotikoaren itxura.
- Normalak: letra berdina hartu eta tamaina handian jarri

### Kokapenaren arabera

- Hegaldatua: Testua kapitularren oinean hasten da.
- Txertatua: Testua kapitularren goikaldean hasten da.
- Esekia: Zutabe zurian kokatua
- Zapaldua: Testuak kapitularra zapaltzen du.
- Inguratua: Testuak kapitularren trazueta egokitzen da.

## TOPOAK (topos, bolos, balines)

- Ikonoak, zeinuan, sinboloak edo irudi geometrikoak izaten dira.
- Testu baten edo zerrenda bateko elementuen gainean arreta deitzen laguntzen dute.

- Bestalde, testuaren bukaera edo jarraipena markatzeko ere balio dute.



- Tipo familia bereziak sortu dira sinbolo hauekin. Ezagunenak: Webdings edo Dingbats.

- Webdings:


- Dingbats: Besteak baino figuratiboak dira.


- Windings:



## HONDOKO TRAMA

- Tramak puntu txikiz osatutako fondoak dira.
- Fondo txuria ez den guztia, trama izango da.
- Efektu optiko bat da. Puntuen tamaina (tinta) eta puntuen arteko hutsunea (zuria) kolore edo beltz lisoa zenaren tonua jaisten da.
- Tinta puntuek zuriarekiko duen proportzioaren arabera neurtzen dira. Honela, punturik ez badago, ez dago tramarik (%0 trama) eta zuria izango da. Dena puntuz beteta baldin badago, aldiz, kolore beltz edo lisoa edukiko dugu (%100 trama). Tartean egongo dira gainerako guztiak.
- Fondo horren gainean dagoen testua azpimarratzea da bere helburua.
- Kolore bakarrekoak, edo askotakoak izan daitezke.
- Bertikalak, horizontalak edo diagonalak ere izan daitezke.





## 6. IRUDIAK

### • EZAUGARRIAK

- Argazkiak asmatu aurretik ilustrazioen bidez sartzen zen irudia prentsan.
- Egunkarietan: XVII. mendetik oso erabiliak. Lehen egunkaria Nieuwe Ty Dirigen holdarra (1605). AEBetan New York Mirror (1823).
- Lehen aldizkariak Harper' Mongol AEBetan eta Once a Week European (1850eko hamarraldian).
- Argazkia 1839 urtean asmatzen da. Egunkari batean modu normalizatuan lehen aldiz Daily Herald estatubatuarra (1880ko hamarraldian)
- Aldizkari grafikoek nortasun propioa XIX. mendetik.
- Egun irudiaren erabilerak garrantzi gehiago dauka aldizkarietan.

### • AHOLKUAK

- Aurpegiak ez dute orrialdearen irteerara begiratu behar.
- Hiru zutabe baino gehiagora badoaz, horizontalak
- Argazki oina eta markoa. Noiz jarri zein? Argazki oinak azken finean informazio bat eman behar digu, ezinbestekoa dena. Markoa es a gusto, markoa jarriz gero sendoagoa geratzen da, markoa beti fina (beti puntu erdia da egokiena).
- Ez dute titularra eta testua banatu behar

- Ahalik eta naturalenak diren argazkiak aukeratu
- Argazki handiak edo bereiztu beharrekoak odolean jarri. Baina kontuz, argazkiak merezi beharko du.
- Argazkiak elkar zapaltzen ez jarri. Beti kale zuriak tartean edo aldamenean.
- Publizitateetik urrundu. Irakurleak publizitateko argazki bat gertu ikusten badu, agian ez da ezberdintzeko gai eta hori ekiditeko, urrundu eta kitto.
- Erlazionatutako argazkiak taldekatuta
- Tamaina txikiko argazki asko badago multzokatu, collage bat eginez eta tamaina berdina emanda.
- Testuaren abiapuntua errespetatu beti (ahal bada, ez jarri argazki bat lehen zutabearen hasieran). Hasiera testua beti errespetatu behar da, testuaren hasiera-hasieran ez baduzu jartzen argazki bat, askoz hobe. Hobe da lehenenego zutabea eta gero irudia joatea.
- Testuaren jarraitasuna ez hautsi. Beti esaten diguna, irakurlea testua irakurtzen baldin badabil tartean ez sartu 3 orri soilik argazkiekin, izugarri mozten baitu irakurketa.
- Argazki gehiegi jarrita orria ito egiten da. Tabloide batean sei baino gehiago dira, A4 batean lau baino gehiago gehiegi dira. Muga beti jarri behar da.
- Dinamismoa lortzeko argazki horizontalak eta bertikalak eta tamaina ezberdinetakoak tartekatu behar dira. Oso handia bada argazki bat, ondoan txikiago bat jarri, edo denak horizontalak badira bertikalen bat sartzea ere ondo legoke.
- Argazkien baitako konposizioetan ere aniztasuna bilatu: forma, plano, angelu, eduki... ezberdinak. Argazki guztiak badira tipo berdinekoak, lehen planoak badira denak ba diseinu horrek asko nazkatuko du irakurlea, aspergarria bihurtzen da.

- **ARGAZKIAK LANTZEKO AUKERAK**

- Siluetatua:

- Argazkia edo irudia kaxa baten barruan beharrezan irekita utzi eta sortzen den forma testuarekin inguratu.
- Siluetekin, oso orri dinamikoak lortzen dira, baina kontuz testuarekin. Zutabe oso zabalak eta zuriuneak erabili.



(irudiaren ondoko hiru zutabeak nahiko zabalak direla ikusten da. Horiek estuak izango balira, argazkiaren siluetagatik azkeneko zutabeetan bi hitz bakarrik egongo lirateke irakurtzeko, hortaz oztopo bat litzateke irudia siluetatzea)

- Zapaldu:

- Beste elementu batek argazkia zapaltzen du.

- Enmarkatu:

- Leihoak ireki daitezke argazki barruan.

- **ARGAZKI MOTAK**

- Horizontalak: Normalean horrelakoak erabiltzen dira, gauzak ikusteko daukagun modua delako. Hiru zutabe edo gehiagora dijoaztenak horizontalak izaten dira normalean.
- Bertikalak: Espresiboagoak dira. Hiru zutabetik behera bertikalak izaten dira normalean.
- Karratuak: Erabiltzen zailak dira.



- **ARGAZKIEK ARGITALPENETAN BETETZEN DITUZTEN FUNTZIOAK**

- Informatzea: Nagusia egunkari batean.
- Dokumentala: Eszena baten xehetasunak deskribatzen dituena.
- Sinbolikoa: Irudiaz haratagoko esanahi bat du.
- Irudi funtzioa: informazioa laguntzen du informazioarik eman gabe (prentsaurrekoak).
- Estetikoa: Karga informatiborik gabea. Edergarri gisa funtzionatzen du.
- Entretanimendu hutsa: aisialdirako, xelebreak direlako irudiak...

- **KOKAPENA**

- Zabalera osoan
- U forman
- L forman

- **ENKUADREA**

- Asko erabiltzen den teknika da, guk nahi dugun zatia soilik azaltzeko aukera ematen du.
- Argazkiaren manipulazioa: Diseinua lantzea
- Gertakizunaren manipulazioa: Gezurretan ibiltzea

- **ARGAZKI OINA**

- Egunkarien kasuan argazki guztiek izaten dute argazki oina. aldizkariaren kasuan beharrezko edo egoki ikusten bada.
- Titulazio elementuen ondotik testurik irakurriena izan ohi dira. Hojeatzen ari zarenean lehenengo tituluak irakurtzen dira, gero irudiak eta baita argazki oinak hortaz oso garrantzitsua da argazki oinak ongi egitea.

- Lehenengo argazkilariaren izena edo argazkiaren jatorria zehartu behar du.
- Gure lanetan:
 

Iturria: Fulano de Tal (ez badakigu ez jarri, bakarrik webgunea) / webgunea (edo nundik atera dugun)
- Irudi guztiak leku berdinetik hartu baditugu, ez du pena merezi banan bana jartzea hortaz, hasieran jarri hau eta kitto: *Argazkiak: Fulano de tal*
- Honen ondorik argazkiaren protagonistak identifikatu ohi dira edo argazkiaren erabilera justifikatzen duen ideia adierazi.
- Piezaren estilo orokorraren arabera estilo informatiboa edo askeagoa izan dezakete.
- Luzitu argazki-oinetan. Noizean behin, segun eta ze testurekin doan, egin daitezke gauza originalak baina pasatu gabe zeren pisutxua izatera heldu daiteke.
- Gainean, alde batean, azpian, edo argazki barruan jar daiteke argazki oina, baina jarraitasun bat eman behar zaio aukeratutako kokapenari.
- Erreportaje honetan argazki-oin guztiak joango dira argazkiaren barruan, ba denak barruan barruan barruan. Hurrengo elkarriketan oin guztiak azpian, ba denak azpian.
- Luzera:
  - Zutabe bakarreko argazkientzat lerro bakarra
  - Bi hiru zutabetara jarritako argazkientzat bi lerro ere jar daitezke
  - Hiru zutabetatik gorako argazkiarentzat, lerro bakarreko oina. (Fotonotziak dira salbuespen, fotonotzi baten oina 3-4 lerrokoa da)

## 7. BESTELAKO IRUDIAK

### • EZBERDINTASUNAK

- Argazkiak: errealitate baten erreproduzio bat da
- Ilustrazioa: errealitate baten errepresentazioa
- Grafikoa: abstrakzio baten errepresentazioa da
- Inforgrafia ilustrazio informatiboak: Errealitate baten edo abstrakzio baten errepresentazio bat da.
- Erreproduzioa: Errealitatean dagoen elementua irudi bidez adierazten da.
- Errerepresentazioa: Errealitatean dagoen elementua irudi bidez interpretatzean

### • ILUSTRAZIOAK

- Ezagutzen diren pergamino zaharrenek ere bazituzten ilustrazioak: "Hildakoen liburua" eta "Papyrus Ramessum" (1900 k.a).
- Egungo ilustrazioaren aurrekaritzat har daiteke Erdi Aroko eskuidatzien iluminazioaren artea.
- Ilustrazioa argazkia iristen ez den tokietara ere iris daiteke: iragan urrunera, etorkizunera eta ideia abstraktuen adierazpena.
- Testuaren tipografia eta argitalpenaren diseinuarekin bat etorri behar du, denak elkarloturik landu behar dira.
- Soslaiak osatzeko erabili ohi dira, kolaboratzaileen irudia txertatzeko, iritzi artikulak aberasteko, erreportajeei argazkiak eman ezin dion janzkera bat emateko...
- Umore grafikoa genero bat gehiago da kazetaritzaren baitan.
- Ilustratzailearen estiloa eta espezializazioa kontuan hartu behar dira. Normalean ilustratzaile bakoitza zentratua egoten da gai jakin batean, orduan segun zer den egin nahi duzuna bat edo beste aukeratuko duzu. Teknikak ere eragin handia du

diseinuan, ilustratzaile bakoitzaren teknikak ezagutzea ere garrantzitsua da.

- Teknikak: luma eta tinta, koloretako lapitzak, akuarela, *goauche* edo tenpera, aerografia (espraiekin egiten direnak), collagea, grabatua eta ordenagailu bidezkoak.

## ● GRAFIKOAK

### ○ Aholkuak


- Estilo zehatza: Lehen kolpean ulertzeko modukoak izan behar dute.
- Ez dute oinik erabiltzen.
- Kazetaritza tratamendua eta oreka
- Ez da abusatu behar

### ○ Motak:

- **ESTATISTIKOAK:** Barrak (Bertikalak), zutabeak (horizontala), gazta (borobila), lineala (INEALA BILAKAERA IKUSTEKO... ineala (bilakaera ikusteko)... Datuak adierazten dituztenak.
- Informatiboak: mapak, antolakuntza-organigramak...

## ● INFOGRAFIKOAK

- Elementu grafiko esplikatiboak eta testu bidezko notak erabiliz gertakari bat edo errealitate konplexu baten inguruan ematen den azalpena.
- 1990eko hamarraldian hasi zen indarra hartzen, ordenagailu bidezko lanketarekin.
- Hainbat adituk The Timesek 1806an Blight jaunaren heriotzaren inguruan argitaratutakoa jotzen dute lehen aurrekaritzat. (marrakiz bat zen berez, eskuz egina)



- Kazetaritza genero bat bihurtu da adituen arabera, eta figura profesional berezitu bezala pisua hartzen hasi da infografista.
- Kazetaritza testu batekin batera joan daitezke, edo bakarrik.
- Edozein kasutan beregaina izan behar du. Beiratuta bakarrik infografia guztia ulertu behar da.
- Ilustrazioetan oinarrituta egin daiteke edo argazkietan oinarrituta. Testua neurrian erabili behar da, osotasuna ito gabe. Testu pila bat jartzen badiogu oreka galtzen du, baina izan behar du testua (esaldiren bat edo beste)
- Titulua izan ohi dute baina gabekoak ere ontzat ematen dira, normalean badute.
- Datu asko eta narrazio konplexu bat eskatzen duten informazioetarako irtenbide on bat dira. Xehetasunak ematen dituzte.
- Informazio askorekin kargatuta dauden gertaerak egokiak dira infografiak egiteko, idatziz narrazio luzeegia aterako litzaiguke hortaz ilustrazio bitartez irudikatzeak bisualki erakargarriagoa egiten du, egokiak dira infografiak kasu honetan.
- Infografian klasikoetan klasikoena hegazkin istripuak izaten dira askotan. Adb: Oiz mendiaren aurka jo zuen hegazkina, Compostelan errailetik atera zen Renfe tren, Chernobyleko zentral nuklearraren gertakaria, lurrikarak, suteak, Irakeko gerraren laburpena urtez urte eta gertakariz gertakari...

**Desastre aéreo en el Monte Oiz**  
 La muerte de Gergorio López Etxebarri, pasajero del vuelo 65 y ex ministro de Franco, dio vida los sucesos

**EL VUELO 65**  
 El Boeing 747 de la compañía española Iberia, operado por Iberia y matrícula EC-IBD despegó del aeropuerto de Barajas (Madrid) a las 7:47 con destino al aeropuerto de Gando (Islas Canarias) para la llegada a las 13:00.

**EL CHOCHE**  
 El Concorde se estrelló a las 12:00, en el momento de ascenso al ser que se aproximaba al aeropuerto. El avión chocó contra la parte superior de una torre de 150 metros de altura. La explosión causó la ruptura de la cabina del avión, por delante del aeropuerto de Oiz, a una distancia de unos 100 metros de la torre.

**CONDICIONES METEOROLÓGICAS**  
 En la zona del aeropuerto de Oiz, una hora y media antes de la hora del accidente, se registró una gran cantidad de nubes y una visibilidad de entre 1 y 2 km.

**ZONA DE IMPACTO Y TRESOS DE LA RAINWAY**  
 Zona de primer impacto  
 Zona de segundo impacto  
 Zona de tercer impacto  
 Zona de cuarto impacto  
 Zona de quinto impacto

**VICTIMA ALUSTRE**  
 Gergorio López Etxebarri. Fue parte de los honorarios del Duque de Alba en su época de ex ministro de Franco. En 1977 se encontraba en un vuelo de la compañía Air France con destino a Canarias. Su nombre fue incluido en la lista de pasajeros del vuelo 65.

**TRASECTORIA FINAL**  
 Después de perder el equilibrio y al producirse la explosión, el avión se desmoronó en tres partes. La parte superior del avión se separó y cayó al suelo. La parte inferior del avión se separó y cayó al suelo. La parte inferior del avión se separó y cayó al suelo.

AGENCIAS: MONTAÑA DE GREGORIO; CHOCHE: GREGORIO; VICTIMA ALUSTRE: GREGORIO; TRASECTORIA FINAL: GREGORIO

## 8. ZURIUNEAK

- 1970tik hona garrantzi handia
- Irakurgarritasuna handitu egiten dute eta atsedean bat eman
- Azpimarratu nahi den elementuaren inguruan jarri behar dira.
- Pieza bereko elementu ezberdinen artean kontu handiarekin erabili behar dira.
- Aurretitulua, titulua eta azpitulua arteko zuriunea  $X$  baldin bada titulazio elementu hauek eta gorputzaren arteko zuriunea  $X \cdot 1,5$
- Berriz, testua bukatutakoan, hurrengo testura utzi beharreko tartea  $X \cdot 2$
- Zuriunek oreka izan behar dute, gainerako elementuek bezala.
- Errespetuzko marginak: bi elementuren artean, elkar EZ zapaltzeko utzi beharreko espazioa.
- Zuriune handiagoak kanpoaldean kokatu behar dira, piezaren kanpoaldean eta orrialdearen ertzetan.
- Zuriuneak ez du testua zatitu behar.

## 9. PUBLIZITATEA

- Publizitatea argitalpen baten itxura grafikoaren baitako elementu garrantzitsua da.
- Egunkari zaharrenek hasiera batean ez zuten publizitaterik sartzen azalean. Gerora, informazioa baino publizitate gehiago zuten azalak ere etorri ziren. Azkenik, informazioa gehiago izan arren publizitate proportzio altu bat onartzen duen eredu nagusitu da.
- Cangak emandako datuaren arabera, batz-beste egunkarien espazioaren %40 bat hartzen du publizitatean
- Garrantzia hori agerian uzten duen beste datu bat: kolorea publizitatearen bidez sartu zen egunkarietan. Iragarleek eskatu zuten beraien iragarkietan koloreak nahi zituztela, bestela ez zegoela publizitaterik. Hasieran ekonomikoki asko suposatzen zuen koloretan ateratzea, baina gaur egun teknologien aurrera pausuekin hori asko

hobetu da; garestiagoa da koloretan inprimitzea zuri beltzean baino, egia da baina prezio diferentzia ez da horren esanguratsua hortaz gehienek koloretan inprimitzea erabakitzen dute.

- Aholkuak:

- Publizitatea eta bestelako edukia argi eta garbi bereizi behar dira
- Egunkariaren edukiak eta honen jarraitasunak izango dute beti nagusitasuna.
- Zabalera osoa hartzen ez duenean kanpoko ertzean kokatuko da. Orrialde bikoitietan bizkarreko marjinaren kontra eta bakoitietan ebakiduraren kontra.
- Iragarkiek bloke erregularrak osatu behar dituzte. Eskailera gisako konposizioak saihestu.
- Orrialde kontrajarrietan iragarkiak nagusitzea saihestu. Orrialde batean publizitate asko baldin badaukagu, bestean ez sartu, gehiegi.
- Iragarki txiki asko dagoenean altura berarekin multzokatu orrialdearen behekaldean jarriko den faldoi batean.
- Faldoi horrek ez luke orrialde erdia baino gehiago hartu behar. Orrialde kontrajarrietan bi faldoi badaude biak altuera berekoak
- Bertikalean jartzen badira orrialde beraren bi aldeetan jartzea saihestu


## 10. KOLOREA

- **FUNTZIOAK**

- Arreta deitu
- Arreta mantendu
- Informazioa eman. Hainbat lotura ditugu koloreekin, kultararengatik, sinbologiakatik
- Informazioa gogorarazi. Ikerketa: Anuntzio bat koloretan edo txuri beltzean ikustean baino 4 aldiz gehiago gogoratzen da.

- **KOLORE SAILKAPENAK**

- Kolore primarioak: Gorria/Urdina/ Berdea
- Bigarren mailakoak: Nahasketatik sortzen direnak
- Kolore beroak eta hotzak
- Kontrastedun koloreak: Elkarrekin zerikusi gutxien dutenak. Bai osaeran eta baita ematen zaien esanahian ere.
- Kolore armonikoak: Osaeran edo esanahietan elkarrengandik gertuago daudenak
- Kolore pastelak: Zuriarekin nahasiak
- Zikinak/ Itzalak: beltzarekin nahasten dira



- **KOLOREAK ERABILTZEKO MODUAK**

- Loturak:
  - Objektua eta bere kolorearen artekoa. Sua beroa da eta naranja gorri kolorea du, beraz kolore horrek beroa transmititzen digu. Natura edo belarra berriz berdea da, horregatik natura adierazi nahi dugunean, ekologismoan adibidez, beti berdez adieraziko dugu.
  - Faktore psikologiko, sinboliko eta kulturalarekin zerikusia dutenak. Adibidez: Normalean natura lasaitasunarekin lotzen dugu eta bere kolorea berdea da beraz,



lasaitasunaz ari garenean berdearekin lotzen dugu. Bizitzaren kolorea zuria da eta ospitalera joaten baldinbarga, medikuen mantala zuria dala ikusiko dugu, horrek bizitza esan nahi du. Bestalde heriotzaren kolorea beltza da.

- Asoziazioak adina, sexua eta esperientziagatik baldintzatuta daude.
- Hotzak: Berdea, urdina, monokromoak (negua, hotza, ura...)
- Beroak: Gorria, laranja, horia (udara, beroa, pasioa..)
- Pasiboak: Berdea, urdina (lasaitasuna, erlajazioa)
- Aktiboak: Gorriak, laranjak (ekintzak, bizitasunak, gaztetasuna)
- Femeninoak: Berdeak, urrezkoak, larrosak, moreak, pastelak...
- Maskulinoak: Gorria, marroia, urdina, zilarra...
- Naturalak: Urdinak, berdeak, grisak...
- Artifizialak: Cyan, magenta... (naturan aurkitzen zaila)
- Esklusiboak / Tradizionalak: Beltza, gorri ilunak, urdin ilunak, oliba kolorea, marroi ilunak (agintzaritza, diskrezioa, dignitatea...)
- Herrikoiak / Mordernoak: Kolore dizdiratsuak, biziagoak

- **KOLOREAK PRENTSAN**

- **HISTORIA**

- Egunkariak XX. mende bukaeraraino ez zuten kolorearen aldeko apustu erabatekoa egin. Aldizkariak mende erdi lehenagotik koloretan zebiltzan.
    - Litografiei esker, egunkari batean kolorea sartzen lehenengoak 1860 urtean *Le Mirmidon* edo *Le Vie Modernen* frantziarrak izan ziren.

- Ohiko erabilera bat ematen lehenengoa *Milwaukee Journal* izan zen, 1891ean.
- Espainiako Estatuan lehenengoa kolorea erabiltzen lehena *Blanco y Negro* astekaria 1897an eta modu ohiko batean *ABC* 1930ean.
- Jauzi handia *Usa Today*-en sorrera 1982an. Aurretik tarteka erabili izan zuten egunkariak kolorea.
- Azkenak euren burua kazetaritza serioaren erreferentetzat hartzen zutenak: *The New York Times*-ek 1997an (Dama Grisa) edota *El Pais*-ek 1998an (kritiko beste batzurekin).

## AHOLKUAK

- Hierarkia lagundu behar dute. Bi kolore baino gehiago badaude, intentsitate handiagokoa informazio nagusiarentzat.
- Bloke informatiboen arteko harremana adierazteko kolore armonikoak erabili behar dira. Erlaziorik ez badute, kontraste bortitza goak
- Kolore-paleta mugatu bat erabiltzea gomendatzen da. Alegia, pare bat edo hiru kolore. Bestela esaten da “kolore mozkorraldia” dagoela edo gertatu dela.
- Orrialde berdinean kolore pastelak eta biziak jartzea saihestu, edota hotzak eta beroak konbinatzea.
- Kolore beltzak kontraste onena ematen du testuarentzat. Fondorako kolore argiak erabiliko dira.
- Kolore kutxak eta negatiboak (kaxa beltz bat letra txuriekin) deigarriak dira, baina azaleraren %20 baino gehiago ez dira irakurtzen.
- Kolore indartsuenak modu neurritsu batean erabili. Gorria eta horia dira inpaktu gehien eragiten dutenak.
- Formek, proportzioek eta saturazio puntuek ere eragiten dute kolorearen pertzepzioan.

# 4. GAIA: INTERNETEKO HEDABIDEEN DISEINUA

## 1. EZAUGARRIAK

- Hipertestualak
  - Askoz ere egitura konplexuagoak egin daitezke, produktuaren egituraketa zailtzen da.
  - Edukia asko aberastu daiteke hipertestualitatearen bitartez, testuinguru zabal batean eman, eduki osagarriekin. Espazio arazo bat dago paperean webgunean ez dagoena. Toki aldetik ez delako mugatua, eta elkarrekin lotu daitezkeelako klik soil batekin.
- Berehalakotasuna (eguneratzea)
  - Momentu oro eguneratu daiteke. Azken orduko albisteak ematen dira; hasieran *flash*-a, gero osatzen dira.
  - Diseinu aldetik, pobretasuna.
- Elkarreraginezkotasuna
  - Irakurleak produktuan parte har dezake, kazetarien bitartekaritza eksklusiboa galtzen da. Foroak eta txatak modan jartzen hasten dira, eta ondoren blogen moda.
  - Txatak, foroak, blogak, sare sozialak, edukien iruzkinak...
- Multimediatasuna: bideoak, streaminga, audioak eta podcastak.
- Guzti hau modu funtzional eta estetiko batean integratzeak ere bere konplexutasuna dakar.

## 2. PAPERZKOAREKIKO ZENBAIT ALDAKETA

- Ez dago azpiegiturarik, erretikularik.
- Zutabeak barruko orrietan desagertzen dira. Kanpoaldeko orrialdean zutabekak banatzen dira albisteak edo edukia baina behin barrura sartzerakoan dena zutabe bakarrean dago.
- Argazki eta irudi kopuru txikiagoa. Digitalean baino argazki eta irudi gutxiago erabiltzen dira. Azalean bai daudela argazki mordo bat,

“eskaparate” bezala funtzionatzen duelako. Baina ondoren, argazki bat soilik azaltzen da, bi edo bi argazki baino gehiago ez dira ikusten.

- Tipografia ere askoz ere mugatuagoa da, basikoagoa askoz. Digitalean erabiltzeko egokiak direnak soilik erabiltzen dituzte, eta askoz gutxiago dira.
- Hierarkizazioa ere ahulagoa da, tamainek ez dute hainbeste garrantzirik. Nagusia ordena da. Bata bestearen atzetik azaltzen dira askotan. Digitalean orain dela ez asko hasi dira albiste bat destakutzen, tamaina handiagoa emanaz.
- Eskaparatizazio nabarmena gertatzen da. Azalean azaltzen ez dena, ez da ageri (nahiz eta gero azpi ataletan aurki daitezken). Ezin da hojeatu digitalean adibidez. Azaletik sartzen garenez, hortik banan bana sartzen garenez, azalean azaltzen ez den albistera iristea oso zaila da.
- Publizitatea modu eraginkorrean eta irakurgarritasuna kaltetu gabe txertatzeko zailtasunak egon izan dira. Egon dira boladak azalean publizitate asko jartzen zirenak, baina jada aldatu da hori. Orain, ordenagailuan ikusten da sarritan, alboko bi zutabeak. Eta horrez gain, animaziozko bannerrek ospea hartu dute.

### 3. ERRONKAK

#### Funtzionaltasuna

- Lehenengo egunkari digitalak ez ziren funtzionalak. Orriek kargatzen denbora asko behar, argazki gutxiago... Eta egunkariko albiste berak zeuden hor, ez gehiago ez gutxiago.

#### Berehalakotasuna

- Kontraesanetan erortzen ziren ze berez paperezko egunkariaren batera argitaratu beharko litzatekeena, beranduago argitaratzen zen.

#### Elkarreagineztekotasuna

#### Harrera. Responsive Web Design

#### Sinergia

- Pentsatzen zen telebistak, irratiak eta prentsa idatziak bat egingo zuela, eta dena webean egongo dela. Ez da

konbergentziarik egon. Talde berekoak, beraien aldetik, askoz gehiago bateratu dira sinergia baliatuz. Prisa taldearen kasuan, adibidez, Cadena Ser eta El Pais daude bertan. Bakoitzak bere webgunea du bere informazioa emateko, baina bat egiten dute diseinuan, iruzkinak jartzerako eran...

### 📁 **Pertsonalizazioa**

- Norberak aukeratuko du ze iritsiko zaion bere ordenagailura. Pruebako ikerketa asko egin dira baina ez dute gehiegi funtzionatu. Bai funtzionatzen dutenak *cookie*-ak izan dira. Hauen bitartez, zuk zure informazioa ematen diozu web guneari (nundik nabegatzen ari zaren, zerri egiten diozun klik..) informazio horren arabera era batera edo beste era batera emango dizkizue gauzak webgunean.

### 📁 **Multimedialtasuna**

- Garai batean baino askoz bideo gehiago ikusten dira orain. *Streaming* bidez saiatu dira, nahiz eta ez duen arrakasta handirik izan. Baina oraindik ere nagusia testuak dira.

### 📁 **Sakontasuna**

- Adibidez, duela gutxi arte estekak testuaren bekaldean jartzen ziren eta jendeak ez zituen ikusten. Baina gaur egun, hipertestualitatea erabiltzen hasi dira esteka horiei garrantzi handiagoa emanez.
- Arnas luzeko kazetaritza digitala. Slow journalism. Asko landutako edukiak. Diseinu berritzaileak erabiltzen dituzte normalean.

### 📁 **Zarata**

- Irakurleak parte hartzeko kanal gehiago daude, eta horrek eztabaida zabaltzeko aukera gehiago ematen du. Baina bakoitzak nahi duen jar dezakenez, fakenews-ak, gezurrak etab. dakartza.

### 📁 **Hierarkizazioa**

- Oraindik ez dute gehiegi lantzen. Nahiko planoak dira. Ordenarekin bakarrik egiten da. (Goren dagoena garrantzitsuena)

## 📄 Hipertestueltasuna

- Testu barruan ez da asko lantzen. Orain arte ez da gauza askorik egin. Testuak beraien artean lotzen dira, baina oso simple.

## 4. HISTORIA

### 1994-1999 LEHEN PAUSOAK

- 1990ean sortu zen World Wide Web (www) teknologia. Tim Bernes-Lee britainiarra eta Robert Cailliau belgiarra sortzailea. World Wide Web guneen teknologia sortzeko, hiru sistema hauek hartu behar dira kontuan:
  - HTTP sistema: Edukiak transferitzeko (**bidaltzeko**) sistema da.
  - URL sistema: Edukiak **bilatzeko** sistema da.
  - HTML hizkuntza: Eduki horiek pantailan erakusteko (**plasmatzeko**) sistema da.
- **1994ean** Explorer nabigatzailea abiaraziko du Microsoftek. lehen boon digitala: 1993an mundu-mailan 500 zerbitzari egotetik 1995ean 10.000 izatera.
- **1994an**, (*Daily Telegraphen* bertsio digitala) *Electronic Telegraph* eta *El Temps*, 1995, *La Vanguardia*, *El Periodico* eta *Avui*, *Marca* eta *El Diario Vasco* ere.
- **1996**, *El Pais*, *El Mundo* eta *Euskaldunon Egunkaria* bertsio digitala ateratzen dute. Baina Euskaldunon Egunkariaren kasua desberdina izan zen, irakurle batek (Josu Azanzak) sortu baitzuen, suposatzen dugu informatiko bat zela.
- 1997an, *Sareko Argiak* aterako du bere eduki digitala.
- 1998an, Google. Bultzada izugarria, hasiera-hasieratik sekulako arrakasta.
- 1999an, Eusko Jaurlaritzaren laguntzak euskarazko argitalpen digitalentzat.
- Protodiseinua: Edukiak irauli / PDFak.
- Diseinuari dagokionean esperimentazio garaia da.

## **2000-2001 EREDU BATZUK FINKATZEN**

- Digitalerako sortutako edukien garrantzia.
- Aldameneko eta goiko menuak.
- Orrialdea 3-4 areatan banatzen da.
- Irudien erabilera handiagoa.
- Lehen grafiko animatuak flash programarekin. (Adobe Flash)
- Multimediatasunaren erabilera txikia.
- CSS (Cascading Style Sheets) sistemari esker HTML hizkuntza eraldatu: edukia eta forma modu bereiztu batean landu daitezke.
- Gaur egungo ikuspegitik:
  - Mantxeta erraldoiak
  - Menuen erabilera oso basikoa. Menua botoi gisa irudikatzen zen garaiotan.
  - Markoen erabilera, rekuadroak
  - Zurigune handia

## **2002-2005 KRISIA**

- Puntucom burbuila lehertzen da. Ekonomia digitalaren hazkunde etengabearen lehen gainbehera.
- Kazetaritza digitalaren garapenean ere geldialdia.
- Diseinu aldetik egunkari indartsuenek infografiaren alde egindako apustua da nobedade nagusia.

## **2006-2009 HAMARKADA BERRIRAKO OINARRIAK**

- Krisiari buelta eman zitzaion eta hainbat argitalpenek diseinu berrikuntzak ekarri zituzten 2006an: Expansion, Avui, Marka, El Mundo, La Vanguardia, El Periodico, Vocento taldeko guztiak..
- Hobekuntza teknologikoak: tubo katodikoko pantailetatik TFT pantaila zapaletara, 800 pikeletatik 1024ra.

- Aldameneko menuaren desagerpena: titularren bidezko nabigazioa nagusituz doa, goiko menua osagarri gisa utziaz.
- Multimedia benetan funtzionatzen hasten da.
- Zailtasunak finantzaketarako: ordainpeko edukiek ez dute funtzionatzen eta iragarkientzako euskarri gisa paperekoak baino prestigio gutxiago du.
- Paperekoaren krisia: Digitalaren garapenak paperekoaren gainbehera ekarri du, eta 2008ko mundu mailako krisiak gainbehera hori areagotu egingo du.
- Digitala paperekoak finantzatzen duenez eta hau krisian dagoenez garapenak motela izaten jarraituko du.

### **2010tik aurrera... AUDIENTZIETAN NAGUSI ETA NEGOZIO EREDUA ERAIKI NAHIAN**

- Digitalak paperekoak baino audientzia handiagoak ditu. Belaunaldi gazteenen artean oso urria da paperekoaren irakurlea eta belaunaldi helduagoak ere animatu dira digitalerako jauzia egitera.
- Bazkidetza edo harpidetza sistemak funtzionatzen hasi dira, digitalak bakarrik diren argitalpenak sortu direlarik papereko eskaintzaren alternatiba bezala
- Hamarkadaren bigarren erdian krisia arindu egin da, iragarleek serioago hartu dute digitala, eta ordainpeko edukiak nahiz dohakoak tartekatzen dituen formula hasi da probatzen hainbat argitalpen.
- Diseinuan eredu horizontala nagusitu da. Eredu horizontala, menua goian dagoela esan nahi du eta nagusiki nabigazioa titular bidez egiten dala.
- Bestelako berrikuntzak ere nabari dira: edukien hierarkizazioan pausuak, sare sozialen erabilera geroz eta nabarmenagoa, irakurleen komentarioei egindako tarteak, bideoaren erabilera normalizatua, tipografia zainduagoa...